

# HAURTZAINDEGIA

## NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Haur-hezkuntzako zentroak, 0-6 urte arteko haurrak zaindu eta hezteko zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

## ENPRESA-PLANA

### Marketin-plana

#### □ Zerbitzuak

0-6 urte arteko haurrak zaindu eta heztea. Normalean beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dira: jangela, joan-etorriak, ordutegi bereziak eta jolas- eta heziketa-jardueren aukera zabala, haurrentzat bereziak.

Bada adostasuna Hezkuntza Zientzien profesionalen artean lehenengo sei urteek haurraren bizitzan duten garrantziaz, bere nortasuna eta era guztietako gaitasunak hezi eta prestatzeko. Nabaria da haurrak bere heltze-prozesuaren lehenengo etapa hauetan duen afektibitate-, ezagumen- eta psikomotrizitate-bizitzak geroko ikaskuntza-prozesuak eta bere eraketa indibidual eta sozialerako beharrezko abstrakzio konplexuak baldintzatzen dituela. Hezkuntza, ordea, batez ere lehenengo hiru urteetan, ez da benetan horrela agertzen. 0-3 urte arteko aldi honetan garrantzitsuak dirudite haurraren osasun, higiene eta elikadurarekin zerikusia duten alderdiak.

Haur-hezkuntzak EAEn duen egiturari dagokionez, dauden zentroak eta horietako ikasle-kopuruak ondorengo tauletan agertzen dira:

*Haur Hezkuntzako Zentroak titulartasunaren arabera. 2001/2002 ikasturtea*

	E.A.E.			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Guzti	Publik	Pribat	Guzti	Publik	Pribat	Guzti	Publik	Pribat	Guzti	Publik	Pribat
Haur Hezkuntza	568	333	235	86	57	29	282	168	114	200	108	92

*Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika*

*Haur Hezkuntzako Ikasleak titulartasunaren arabera. 2002-2003 ikasturtea*

	E.A.E.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Ikastetxe guztiak</b>	63.681	8.198	33.749	21.734
<b>Ikastetxe publikoak</b>	32.396	4.390	16.770	11.236
<b>Ikastetxe pribatuak</b>	31.285	3.808	16.979	10.498

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Merkatu honen aukera-faktoreen artean, hauek dira nabarmentzekoak:

- Bi kideek lan egiten duten bikote gazteak gehitzea.
- Emakumea profesionalizatzea.
- Hirien hazkundera.
- Etxebizitza txikiagotzea: bertan ez dago jende asko elkarrekin bizitzerik, eta familia nuklearra sortzen da.
- Industrializazio-prozesuak lana urundu egiten du familia-inguruetan.

Aztertu beharreko beste faktore bat lehiarena da. Hau bitan banatzen da: publikoak (udalena) eta pribatuak. Udal-hurtzaindegiek beste edozein hurtzaindegi pribatutan aurki daitezkeen ezaugarrien oso antzekoak dituzte. Alderik nagusiena agian hau izan daiteke: udal-zentroek diru-laguntza garrantzitsuagoak hartzen dituztela pribatuek baino.

Zerbitzuei dagokienez, ez dago alde handiegirik zentro publikoek eta pribatuek eskaintakoen artean: zaintza, jangela, lorategia, orientabide psikopedagogikoak, garraioa, etab.

Eskaintako prezioei buruz, berriro ere bereizketa egin behar da zentro publiko eta pribatuen artean. Lehenengoek prezio apalagoak dituzte zentro pribatuek ezartzen dituztenak baino, ziur asko herri-erakundeetatik diru-laguntza handiagoak hartzen dituztelako. Zentro hauen prezioa 180 eurokoa da hilean (bazkaria barne). Gainera, zentro batzuek %25eko beherapena egiten diete zentroan bi seme-alaba dituzten gurasoei; %50ekoa 1. kategoriako familia ugariak eskatzaileei eta %100ekoa 2. kategoriako familia ugariari.

Zentro pribatuei dagokienez, prezioak garestiagoak dira, dudarik gabe, zentro publikoek baino diru-laguntza gutxiago hartzen baitituzte, baina zerbitzu berdinak eskaintzen dituzte.

Zentro publiko eta pribatuek gain, lehia gisa, zeharka bada ere, kontuan izan behar dira haurrak zaintzeko kontratatzen diren pertsonak. Zeharkako lehia da, hauek ez baitute era berean asetzen premia, pertsona hauek haurrak zaintzera mugatzen baitira, heziketarik edo osasun-zaintzarik eman gabe. Bukatzeko, eskariarekin zerikusia duen beste faktore bat hau da: gurasoek nahiago dutela beren seme-alabak senideren batekin (aiton-amonak, izeba-osaba eta abarrekin) uztea. Hala ere, uste dugu honek ez duela betetzen hurtzaindegi edo haur-eskola baten funtzio berbera.

#### □ *Sustapena*

Ez dago gomendaturiko formularik, baina garrantzitsua da bereiztea, bai eskaintako zerbitzuengatik, bai kokapenagatik eta bezeroarenganako hurbiltasunagatik. Zentroko ikasketa-planak edo eskolaz barruko eta kanpoko ekintzen programek beharrezko sinesgarritasuna ematen dute gurasoen aurrean.

Bestalde, jaiotza-kopurua murrizten ari denez eta hurtzaindegiak gelak betetzeko dituzten arazoak ikusita, azken urteotan gero eta gehiago erabiltzen da publizitatea bezeroak erakartzeko. Normalena da iragarkiak sartzea jaioberrietan espezializaturiko aldizkarietan edo tokian tokiko egunkarietan.

## **Plan Operatiboa**

### □ *Lokala*

Ahal bada, beheko plantan gela eskusibo bat, kanpotik bere sarbidea duena, baita bere jolastokia ere.

### □ *Eremua*

Lehen zikloa emateko (0-3 urte) eta adin-zati bakoitzerako talde bat gutxienez izango delakoan, 30 m<sup>2</sup>-ko hiru gela behar dira, elikagaiak prestatzeko lekua, erabilera askotarako gela, 75 m<sup>2</sup>-ko jolastokia, eta haurrentzako komunak gela bakoitzean, langileentzako ez aparte. Bigarren ziklorako (3-6 urte), eta gutxienez 3 talderekin, beste zerbitzu batzuk behar dira, adibidez esku-lanetarako lantegia edo haur-liburutegia.

### □ *Instalazioak*

Instalazio orokorrez gain (harrera, atsedena, sukalde edo jolastokiak) kontuan izan behar da komunak egokitu behar direla 2-6 urte arteko haurrentzat.

### □ *Ekipamendua*

Sehaskak, lastaira txiki edo koltxonetak, etzaulki edo hamakak, oihalak aldatzekoak, aulki eta mahai egokituak, papertegiko materiala, liburuak, koadernoak, jostailuak, kanpoan jolas egiteko instalazioak, eskaintako ekintza-programa gauzatzeko behar den materialaz gain.

## **Giza baliabideen plana**

Haur-hezkuntzako irakasle titulua behar da. Lehenengo zikloa bakarrik ematen bada (0-3 urte), langile gaituen kopurua talde-kopurua gehi batekoa izango da. Gainera, sei taldeka Haur Hezkuntzan espezializaturiko irakasle bat edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (Eskolaurreko) irakasleak behar dira. Bigarren zikloa bakarrik bada (3-6 urte), Haur Hezkuntzako irakasle bat edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (Eskolaurreko) irakasle bat behar da unitate bakoitzeko.

Haurtzaindegiei buruzko araudiak gehienezko haur-kopurua — adinen arabera, 8 eta 25 artekoa — ezartzen du zaintzaile bakoitzeko.

## **Inbertsio-plana**

Plan operatiboan finantzaketa-premiak dimentsionatzea da garrantzitsua.

Alde horretatik, inbertsio teknologikoa nekez jaitsiko da 200.000 eurotik, eta milioi bat euroraino irits daiteke anbizio gehiagoko proiektuetan.

Finantzatu beharreko ustiapen-gastuak 300.000 euro eta 3 milioi euro artekoak izan daitezke erdi-mailako proiektuetan, kontuan izanda marketin- eta merkaturatze-sailak guztiaren %50 eta %66 artekoa izan beharko duela.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

### **Administrazio-izapideak**

**EAE:** Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>  
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

### **Enpresa bat sortzeko informazio osoa**

<http://www.creaciondempresas.com/>

### **Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak**

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

### **IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK**

#### *Banan-banako arreta eskaintzea*

Zeure ardurapeko haurrari eta bere gurasoei, hauek baitira benetako bezeroak, banako arreta ematea gurasoek asko balioetsiko duten zerbait da. Jakina, gurasoek nahi dute hezitzaileek interesez jarraitzea haurraren bilakaera eta horren berri beraiei ematea.

#### *Onena izateaz gain, lehenengoa izatea*

Gehiegizko lehiarik gabeko lekua, ahal bada hazten edo jendeztatzen ari den gune bat aukeratzeak bezero izan daitekeenarengana hurbiltzea eskatzen du. Garrantzitsua da garaiz iristea, baina baita komunitatearentzat onuragarri diren hezkuntza-zerbitzu osagarriak eskaintzea ere: ordutegi zabal eta malguak, haurrak jasotzea, ordukako zerbitzuak, oporretako ekintzak, etab.

#### *Garai berrietara egokitzea*

Hartzaindegiak ez ditu mugatu behar bere zereginak haurrak zaintzera. Zerbitzu berriak asmatzea garrantzitsua da aldaketa soziologikoetara egokitzeko eta trenak ez ihes egiteko; gaueko zaintza etxeetan, atzerriko haurrentzat zerbitzu espezializatuak, baterako jarduera ludikoak gurasoen eta seme-alaben artean, haur-gimnasioak, etab.

#### **HELBIDE INTERESGARRIAK**

<http://www.padresehijos.org>

<http://www.unmundoparabebes.com>

<http://www.cyberpadres.com>